

Asier Serrano Lasa

*Ate osteko
itzalak*





Asier Serrano Lasa

*Ate osteko
itzalak*

XLI IRUN HIRIKO KUTXA
LITERATURA SARIAK

algaida



Iñaki Aldekoak, Lourdes Otaegik eta Patri Urkizuk osaturiko epaimahaiak *Ate osteko itzalak* poema-liburuari eman zion XLI Irun Hiriko Kutxa Literatura Saria, euskarazko Olerki modalitatean.



Azaleko argazkia: Stephen Orsillo/123RF

© Asier Serrano Lasa, 2016

© Algaida Editores, 2016

Avda. San Francisco Javier 22

41018 Sevilla

Telefonoa 95 465 23 11. Telefaxa 95 465 62 54

ISBN: 978-84-9067-555-7

Lege gordailua: SE. 410-2016

Espanian inprimatua - Printed in Spain

Eskubide guztiak gordeta. Legeak lan honen edukia babestu eta kartzela zigorrak edota isunak eta kalte eta galerakatik kasu bakoitzean egoki izango diren indemnitazioak ezartzen ditu literatur, arte zein zientzi lana edo beronen eraldaketa, interpretazioa edo artezko exekuzioa edozein eratako euskarritan finkatuta edo edozein eratako bidez komunikatuta, erreproduzitu, beretu, banatu edo agirian komunikatuko dutenentzat.

ATE OSTEKO ITZALAK

Atearen mailukoa jo du norbaitek.
Atea ireki dut eta
maitale hautsien itzalak
sartu zaizkit etxe hutsean.
Beste norbait espero nuen baina
zuek ere ongietorriak zarete.

GAUEROKO BESARKADAREN ITZALA

Arraun nagiaren norabidea hartu du
gure gaueroko besarkadak gaur,
eta badakit beste norbaiten laztanek
harrotu dutela zure klitoriaren galerna,
badakit,
nire izena baxuegi edo altuegi ahoskatu duzulako,
badakit,
nire izena arinegi edo motelegi ahoskatu duzulako,
eta batez ere badakit
gosaritarako prest zeneukan bizkotxo
irensten aditu dizudalako gauaren erdian.

GUTUN ZURIAREN ITZALA

Bere izena madarikatzen duen gizonak
idatzi behar duen gutun zuria malkoz bustitzen du.
Kanpoan, fruitu ernatu berrien azoka eguna ospatzen da
eta masusta puztuen begi moreek
Herioren gaurko bisita atzeratzen dute.
Bere izena madarikatzen duen gizonak
gutun zuria sinatzen du,
maite dituen ondorengoek izan dezaten
nor gorrotatu.
Heriok ez du gaur etxean afalduko.